

# Bilbon, 2011ko otsailaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,  
Aleman, Sagrario  
Arejita, Adolfo,  
Coyos, Jean-Baptiste,  
Goenaga, Patxi,  
Haritschelhar, Jean,  
Larre, Emile,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Salaburu, Pello,  
Sarasola Ibon,  
Toledo, Ana,  
Torrealdai, Joan Mari,  
Uribarren, Patxi,  
Videgain, Xarles,  
eta Zalbide, Mikel  
Erramun Osa, idazkariordea,  
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,  
Mikel Gorrotxategi,  
Patxi Galé  
eta Alfontso Mujika euskaltzain urgazleak,  
zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Aurelia Arkotxak, ahala X. Videgaini; Miren Azkaratek, ahala P. Salabururi; Jose Irazu «B. Atxaga»k, ahala A. Urrutiari; Joseba Lakarrak, ahala A. Urrutiari; Patxi Salaberrik, ahala A. Iñigori; Patxi Zabaletak ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Etorririko euskaltzainak agurtu ondoren, Euskaltzainburuak batzarrari hasiera eman dio.

**1. Aurreko akta onartzea.** J.L. Lizundiak eta A. Iñigok ohar batzuk ahoz helarazi dituzte eta, idazkariak horiek kontuan harturik, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

## **2. Hasi aurrekoak.**

**2.1. Eguneko programa.** Akademia gaietan sartu baino lehen, osoko Batzar arruntak goizeko 10:00etatik 11:55eta-

ra iraunen duela adierazi du euskaltzainburuak, eta arratsaldean ez duela segidarik ukanen.

Ondoren, behe solairuko aretoan, jendaurreko ekitaldian, Joseba Intxaustiren eta Mikel Zalbideren liburu argitaratu berriak aurkeztuko dira, eta, amaitzeko, Aizpea Goenagak eta Maria Jose Olaziregik Etxepare institutuaren aurkezpena egingen dute.

### 3. Onomastika.

**3.1. «Ekialde Hurbila (III) Armenia Proposamena onartzea.** Ez da oharririk etorri eta, beraz, besterik gabe, proposamena onartu da.

**3.2. Arabieraren euskararako transkripzioa aurkeztea.** X Kintanak arabieratik transkripzioen aurkezpen laburra egin eta behialako arabiera klasiko batutik gaur tokian tokiko arabiera mintzatu eta dialektaletara egoten diren aldaketa eta ebakera ezberdinak aipatu ditu, batez ere bokalei dagokienez. Horrez gainera, gogorazi du kontuan hartzekoa dela arabiar herrialde horietan luzaro gainjarririk potentzia kolonialaren hizkuntza ofizial eta administratiboa zeintzuk izan diren (espainiera, frantsesa, italiara, turkiera, ingelesa...), eta ia beti mintzaira horietatik abiatuak moldatu izan direla, oraintsu arte, bertako leku-izenen nazioarteko transkribaketa bereziak.

Aipaturiko arrazoi ondoz, Alfontso Mujikak, kasu eta ezberdintasun nabarmenak xehekiago azaldu ditu. Horregatik, arabiar alfabetoaren transkribatze-taula orientagarria eskaini arren, maiz, nazioarteko erabilera luze eta hedatua ere kontuan hartu behar izan da, guregana heldu diren toponimo batzuk erabat ez desitxuratzeko. Oharrak martxoaren 15erako bidali beharko dira.

**3.3. Siriako eta Libanoko toponimia aurkeztea.** Siriako eta Libanoko toponimoen zerrenda aurkeztu da. J.L. Lizundiak eskualde horretako Estatu ezberdinen egoera bereziak azaldu ditu, gaurkoz, Frantziaren mandatu eta eraginpean 1920tik egondakoenak, toponimoak gaur eskuarki arabieraz mintzo diren herrietan kokaturik egon arren, izen horietako batzuk jada denbora biblikoetan aipatuak direla gogorarazi du, eta beren forma zaharretan eskuarki grezierazko izen klasikoekin agertzen zirela bertako hiri eta leku garrantzitsu ez gutxi. A. Mujikak toponimo horiek hautatzeko irizpideak azaldu ditu: historia, kultura, erlijio, merkataritza edo demografia aldeko garrantzia. Aurrekoan bezala, oharrak bidaltzeko epea: martxoaren 15a.

### 4. Onomastika

#### 4.1. Euskal Herriko ibaien izenak (VII) zerrenda onartzea.

P. Galék 7. mapa komentatu du, helduriko oharren arabera. Batetik *Oibar* onartu da (gastelaniaz *Aibar*). *Bizkaia* sin. *Armillos*. Lergatik pasatzen den ibaiaren izena:

*Urretako erreka, Indusi* kenduz. Bestetik, *Arizpildueta* (Barasoain ingurukoa). Proposamen hauek ontzat eman dira.

**4.2. Euskal Herriko ibaien izenak (VIII) zerrenda aurkeztea.** A. Iñigok 8. mapa aurkeztu du, eta P. Galék hor ageri diren zailtasunak, dokumentaziorik eza, susmoak, aieruak eta zalantzak azaldu ditu xeheki. Oharrak martxoaren 15erako bidali beharko direla gogoratu du.

**5. Lexikoaren behatokia. Egitasmoaren aurkezpena.** A. Sagarnarekin batera,

Miriam Urkia, Antton Gurrutxaga eta Xabier Artola jaun-andreak etorri dira. Hitza harturik, A. Sagarnak Lexikoaren behatokiaren historia eta horrako materialak biltzeko prozedura azaldu du. Gero hitza lagunei eman die.

M. Urkiak UZEIn egiten duten lana azaldu du: testu bilketa eta katalogazioa. Horretarako darabilten irizpidea ere argitu du, lehentasuna eta eskuragarritasuna kontuan harturik, Euskaltzaindiarekin sinaturiko hitzarmenaren arabera.

Fitxak nola betetzen dituzten eta bilduriko datuak nolakoak diren ere azaldu du. Azkenean arlo ezberdinen sailkapena erakutsi du.

Elhuyar-en lana Antton Gurrutxagak aurkeztu du eta jardueraren fase ezberdinek banan-banan eta elkarrekiko loturan azaldu: katalogoa corpusgile tresnan kargatu, formatu bihurtzea, egiturak etiketatzea, aurreprozesamendu linguistikoa, lexikoi osagarria prestatzea, aldaerak normalizatzea, akats ortografikoak zuzentzea eta euskarazkoak ez diren pasarteak markatzea. Kostuez ere mintzatu da.

Xabier Artolak, Ixa taldekoak, aldiz, LB proiektuaren etiketatze linguistikoa azaldu du, berak proiektuaren diseinu-koordinazioetan, Corpusaren prozesatze linguistikoa automatikoan parte hartzen du eta. Eman beharreko pausoak aipatu eta xeheki argitu ditu: tokenizazioa, segmentazio morfoloikoa, tratamendu morfosintaktikoa eta anotazio linguistikoa. 2011rako egitekoak ere azaldu dira.

Bukatzean euskaltzainburuak parte-hartzaile guztiei eskerrak eman dizkie.

## 6. Esku artekoak.

### 6.1. Euskaltzaindiaren XVII. Barne Jardunaldiak.

Euskaltzaindiak aurten Donostian egingo dituen Barne Jardunaldietan Zuzendaritzak plan estrategikoa bat proposatuko duela iragarri du A. Urrutiak eta, horretarako, euskaltzain guztien oharrak jasoko direla.

Asmo horrekin, euskaltzainak Kursaaen bilduko dira martxoaren 25ean, goizeko 10etan, eskura banatu den programaren arabera.

Goizeko saioan, Osokoen bilkuraren ondoan, 11:45etik 12:15era Euskaltzaindiaren XVII. Barne Jardunaldien aurkezpena izango da. Horren hurrengo, 12:15etik 14:00 arte, Plan Estrategikoaren 1. zatia aztertuko da.

Bazkalondoan, 15:30etik 18:00etara Plan Estrategikoaren 2. zatia ikertuko da, horren ondoren Jardunaldien itxiera egiteko. Hori amaituta, 19:00tik 20:15era arte Korrikak Euskaltzaindiari omenaldia eskainiko dio.

## 6.2. Eusko Jaurlaritzaren Aholku-Batzordea.

Lau azpibatzerde edukiko ditu Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak: Toponimia, Terminologia, Euskara 21 eta IKT. Aurreko batean, lehenbiziko bi azpibatzerdeetarako, Euskaltzaindiaren ordezkariak izendatu ziren, baina garrantzizkoa da, halaber, beste bi batzordeetan ere Euskaltzaindiak ordezkari bana izatea. Horiek horrela:

- IKT Batzorde-atal berezirako, Andoni Sagarna, Iker sailburua, proposatu da.
- Euskara 21 Batzorde-atal berezirako, Andres Iñigo, Jagon sailburua, proposatu da.

## 6.3. Euskararen Erakunde publikoa.

Euskararen Erakunde Publikoko Aholku Batzordean Euskaltzaindiaren ordezkaria Jean-Baptiste Coyos euskaltzain osoa proposatu da.

## 7. Azken ordukoak

### 7.1. Henri Duhauren eskaria.

Henri Duhau jaunak, Corpus batzordeko eta Euskalkien batzordeko partaide denak, Euskaltzaindiari gutun bat igorri dio, batzorde horietako kide izatetik osan arrazoiengatik aholkulari izatera igarotzeko eskatuz. Eskaria onartu egin da.

Batzarra 11,55etan amaitu da, ondoren ageriko bilkurara joateko.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria

# Ageriko bilkura

Bilbon, 2011ko otsailaren 25ean

Bilbon, 2011ko otsailaren hogeita bostean, egoitzan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain Osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Jean-Baptiste Coyos, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzaina: Joseba Intxausti

Joseba Zabaleta kudeatzailea eta Erramun Osa idazkariordea.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi eta Amaia Okariz.

Euskaltzainburuak hitza hartu du ekitaldiaren nondik-norakoa azalduz. Horren ostean, hitza eman dio Joseba Intxausti euskaltzain oso eta Euskararen Historia Soziala egitasmoaren buru denari. Honek, *Euskararen Historia Soziala (EHS)*. *Argibide bibliografikoak* izenburua daraman liburua aurkeztu du.

Jakina denez, Liburua Joseba Intxausti ohorezko euskaltzainak paratu du, eta Etxeberri bilduma berriaren lehen zenbakia da. Etxeberri bilduman (EHS) euskararen historia soziolinguistikoari buruzko lanak –agiriak eta ikerlanak, idazlan berriak eta lehendik sakabanatuta daudenak– biltzen dira. Euskaltzaindia Euskararen Historia Soziala (EHS) egiten ari da, eta horretarako sortua du Mikel Zalbide eus-

kaltzainak zuzentzen duen Joanes Etxeberri egitasmoa. Hala bada, *Euskararen Historia Soziala (EHS)*. *Argibide bibliografikoak* argitalpenaren helburu nagusia EHS ezagutu ahal izateko eskura dauden argitalpenak aurkeztea izan da, liburuak eta artikulatuak bilduz.

Orotara, 4.440 erreferentzia jasotzen ditu liburuak, eta hizkuntzaren historia sozial orokorrera hurbiltzeko bibliografia hautatua eskaintzen du: 1.657 liburu, 1.955 artikulua eta 828 hitzaldi edo liburu-kapitulu. Euskararen iragan soziala jakin eta arakatu nahi dutenentzat pentsaturik dago argitalpena, eta bereziki ikertzaile eta ikertzaile-gaientzat egin da bilketa hau. Batez ere, ikertzaile gazteak izan ditu gogoan Euskaltzaindiak. Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola Euskaltzaindiko teknikariek ere lan egin dute liburu honetan.

Joseba Intxaustiren aurkezpenaren ondoren, euskaltzainburuak hitza eman dio Mikel Zalbide euskaltzainari. Honek, *Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen saioa* liburuak aurkeztu du. Liburu hau, Jagon bildumaren barruan argitaratu da, bilduma honen hamaikagarrena izanez.

Liburu honen abiapuntua 2007an Euskaltzaindiak egin zituen Jagon Jardunaldietan dago. Euskararen Erabilera Normaltzeko Oinarri Legea 25 urte betetzen zituenez, legeak mende-laurdenean izandako bilakaeraz gogoeta-saioa egin zen aipatu jardunaldi horietan. Alde askotatik jorratu zen gaia: administrazioa, kulturgintza, komunikabideak... Mikel Zalbide euskaltzain osoak parte hartu zuen jardunaldietan, eta hezkuntza alorreko bilakaeraz balioespen teknikoak egin zuen. Liburu hau da ordukoaren emaitza.

Liburuak perspektiba soziolinguistikotik idatzia dago, baina beste hainbat alor ere hartzen ditu kontuan: jurilinguistika, hezkuntza elebiduna, demolinguistika eta, ororen gainetik, euskara indarberitzeko saioan hezkuntza alorreko aplikazio-neurrien ekarpena. Gizarte giroa –1982koa, 2007-08koa–, A, B eta D ereduak ordutik hona izandako bilakaera, emaitzak, erronkak... hori guztia aztertzen da. Bestalde, hauek bezalako galderekin liburuan dute erantzuna: Ondo egin al dira gauzak eskola-munduan? Betetzen al da legea? Zertan asmatu da? Lana azken gogoeta-saioak amaitzen da.

Ageriko bilkurari segida eman zaio Etxepare Institutuaren aurkezpenarekin. Aurkezpenean, Aizpea Goenaga zuzendari nagusiak eta Mari Jose Olaziregi Euskararen Sustapen eta Hedakuntzarako Zuzendariak parte hartu dute. Mahaietan, Jose Luis Lizundia diruzaina eta Etxepare Institutuko zuzendaritzako kidea ere egon da.

Institutuaren nortasuna eta zereginak azaldu dizkiete bertaratutakoei Goenagak eta Olaziregik. Horiek horrela, munduan euskal kulturari leihoak zabaltzea da Etxepareren helburua; beraz, dituzten asmoak, izenpetu dituzten hitzarmenak, eta abar azaldu dituzte.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzekin bukatu da ageriko bilkura, ekitaldian zehar esku-hartu duten guztien aurkezpenak eskertu eta gero, eguerdiko 13:30ean.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria